

AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, EUSKARAREN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZARAKO INSTITUTUAREN OSAERA ETA EGITEKOAK ZEHAZTEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEN DIONA.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen xedea xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzea da, eta 12.1 artikuluan ezartzen du prozedura horiek gaiaren arabera eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko direla. Era berean, aipatutako legearen 13.1 artikulua prozedura hasteko agindu horrek bete behar dituen baldintzak eta gutxieneko edukia ezartzen ditu.

Dekretua eratzeko lehen pausoa kontsulta publikoarena izan da. 6/2022 Legeak 11. artikulua arautzen duen hasiera-fasearen barruan. Hala izanik, 2025eko azaroaren 11n argitaratu zen aurretiazko kontsultaren izapidea ezartzen duen Ebazpena, non hamar egun balioduneko epea ezarri zen eragindako erakundeek, herritarrek eta entitateek iradokizun eta iruzkinak aurkez zituzten.

Arauaren xedea eta helburua

Dekretu-proiektu bat egiteko prozedura hasi da, eta haren helburua da Euskararen eta Hizkuntzen Irakaskuntzarako Institutuaren osaera eta egitekoak zehaztea.

Hezkuntzari dagokionez euskal gizarteak azken hamarkadetan izan dituen erronkak eraldatu egin dira, eta errealitate berriari erantzuteko egitura eta proposamen berriak behar dira.

Dekretuaren bidez, Euskararen eta Hizkuntzen Irakaskuntzarako Institutuaren eginkizunak izatera pasatuko dira bai hezkuntzaren arloan eskumena duen saileko Euskara Zerbitzuak orain arte bete izan dituen funtzioak, bai HEZILABeko euskara, eleaniztasuna eta kulturartekotasun atalaren eginkizunak.

Euskal Hezkuntza Sistemaren menpeko organo horren egiteko nagusiak hauexek izango dira: hizkuntza-metodologiak lantzea eta irakasleak prestatzea, haien jarrera, aurrerapena eta hizkuntza-inplikazioa indartzeko asmoz, hezkuntza-sistemak testuinguru bakoitzean dituen eskakizunen arabera.

Bideragarritasun juridikoa eta materiala

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 16. artikulua, Konstituzioaren lehenengo xedapenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari aitortzen dion hezkuntzaren arloko eskumena.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak bigarren kapituluaren ezarri zuen Eusko Jaurlaritzak, neurri aproposak hartuko dituela Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko irakaskuntzan elebitasuna gero eta orokorragoa izan dadin.

Uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza ez-unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duenak, beharrezko arau-esparrua ezarri zuen, eta oinarriak jarri zituen Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan irakasten duten irakasleen hizkuntza-prestakuntza eta -trebakuntzako programak urtero gauzatzeko



1983ko abuztuaren 1eko Aginduak (abuztuaren 19ko EHAA), Hezkuntza eta Kultura Sailarenak, 12. artikuluan, honako hau ezarri zuen:

"Hezkuntza eta Kultura Sailak beharrezko neurriak hartuko ditu eskola-giroan euskararen erabilera bermatzeko, ohiko adierazpen bihurtuz, bai eskola-eremuan, bai eskolaz kanpoko eremuan".

1994ko urtarrilaren 28ko Aginduak IRALE programa arautzen du. Haren xedea hauex da: Autonomi Elkarteko ikastetxeetan lanean diharduten irakasleak euskaldundu edota alfabetatzea da. Azken helburua, nolana ere, honako hau da: irakasle horien berriazko hizkuntz prestakuntza lortzea, legez eskatzen den trebeziak eta gaitasunak euskara edo euskaraz irakatsi ahal izan dezaten.

Ekainaren 11ko 84/2019 Dekretuak, zeinaren bidez arautzen baita hizkuntza normalizazioko Ulibarri Programa unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan, II. kapituluaren zehazten duenez, programaren helburua da ikastetxeetan euskararen erabilera sustatzea eta ikasleei irteera profilean euskararako ezarritako komunikazio-kompetentzia lortzen laguntzea.

Nolega Deialdi Bateratua ikastetxeetako giroa euskalduntzen laguntzeko dirulaguntza deialdia da. Helburu horrekin NOLEGA izeneko ekimen sorta moldatu zuen Hezkuntza Sailak 1984an; hortik aurrera, eta gaur egun arte, atal honek etenik gabe hainbat ekimen bideratu, antolatu edota diruz lagundu du. Ahozko erabilera areagotzeki begira, deialdi sorta zabala eskaini izan du urtero.

Abenduaren 21eko 17/2023 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena, zehazten duenez, Euskal hezkuntza euskara ardatz duen sistema eleaniztun gisa egituratzen da, eta bi hizkuntza ofizialen bidez eta atzerriko hizkuntza baten bidez, gutxienez, antolatzen da, ikaskuntzak bideratuko dituztenak, gizarte-kohesioa eta herritarrek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko duten gaitasuna bermatzeko. Lege honek posible egin nahi du ikasle guztiek, familia-jatorria edozein dutela ere, ikasketak amaitzean bi hizkuntza ofizialak maila berean ezagutzea eta, horretaz gain, gutxienez atzerriko hizkuntza baten ezagutza izatea.

Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak

Abenduaren 21eko 17/2023 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena, 90. artikuluan zehazten ditu Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren sorrera, izaera eta helburuak.

Bertan, autonomia funtzionala duen organoa dela zehazten da, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailari atxikita.

Egiteko nagusien artean, hauexek daude: hizkuntza-metodologiak lantzea eta irakasleak prestatzea, haien jarrera, aurrerapena eta hizkuntza-inplikazioa indartzeko asmoz, hezkuntza-sistemak testuinguru bakoitzean dituen eskakizunen arabera.

Artikulu berak zehazten duenez, Institutuak bere gain hartuko ditu hezkuntzaren arloko eskumena duen saileko Euskara Zerbitzuak sortu zenetik bete izan dituen eginkizunak. Halaber, artikulu berak finkatzen duenez, Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez zehaztuko ditu Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren osaera eta eginkizunak. 17/2023 Legean ezarritakoaren arabera, eta haren antolakuntza- eta funtzionamendu-araudia onartzeko ahalmena aurreikusiko du, erregelamendu bidez xedatuko denaren esparruan.

Azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak, 2.3 artikuluan zehazten duenez, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua Hezkuntza Sailari atxikitako Organoa da.

Horrez gain, 4. artikulua arabera, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuak, sailburuaren mende dela, indarrean dagoen araudiak ezarritako egitekoak gauzatuko ditu.

Laugarren Xedapen Gehigarrian ezartzen denez, Gobernu Kontseiluan erabakitako dekretu baten bidez, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren titularrak proposamen arrazoitua egin ondoren, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren titularra izendatuko da, zeinaren ardura izango baita Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren osaera eta egitekoak zehaztuko dituen dekretua egiteko prozesua izapidetu eta zuzentzea. Dekretu hori Gobernu Kontseiluak onartu beharko du, gehienez ere Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legeak ezarritako epean.

2025eko otsailaren 2ko Gobernu Bileran onartutako Urteko Araugintza Planaren 8.3 puntuan jasota dago dekretu-proiektu hau.

Aurrekontuetan izango duen eragina

Ez da aurreikusten aurrekontu-gehikuntzan eraginik izango duenik, lehendik dauden azpiegiturak eta baliabideak erabiliko baitira.

Egin beharreko izapideak eta txostenak

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1 artikulua e) letran xedatutakoaren arabera, hasteko aginduan adieraziko dira proposatutako erregulazioaren gaia eta edukia kontuan hartuta egokitzen diren izapideak eta txostenak. Adierazitakoa kontuan hartuta, aurreikusitako agindu -proiektua egiteko eta onartzeko hasiera batean behar diren izapideak eta txostenak zehazten dira jarraian:

1.- Hasteko agindua egoitza elektronikoaren iragarki-taulan eta Legesarean argitaratzea.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da. Halaber, agindu hau ezagutza partekatuko Legesarea lankidetzaren gunean txertatuko da.

2.- Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.

Arau-testua aldeztu aurretik onartu ondoren, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egingo da.

3.- Generoaren arabeko eraginari buruzko txostena.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren arabeko eraginari buruzko txostena idatziko da.

4.- Txosten juridikoa.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikulua ezartzen duenez, espedientearen edukia eta azterketa juridikoa saileko zerbitzu juridikoak emandako txosten juridiko espezifiko baten bidez bideratu ahal izango da. Txosten bat eskatuko da, proiektuaren oinarrien defentsa juridikoa egiteko, edukia legera egokitzeko eta araugintza-teknikaren jarraibideak betetzeko.

5.- Presako izapidetzea.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 6. artikulua arabera, xedapen orokorrak egiteko prozedura presaz izapidetzeko arrazoiak daudela erabaki ahal izango da baldin eta interes publikoko arrazoi larriak edo ezohiko zirkunstantziak badaude eta, aldez aurretik aurreikusi ezin izan direlako, presaz onartzea exijitzen badute.

Era berean, presaz izapidetzea erabakiko da baldin eta beharrezkoa bada araua indarrean jartzea epe jakin batean, hain zuzen zuzentarauen transposiziorako eskatutako epean, edo Estatuko oinarritzko legedira egokitzeko edo arau jakin bat Konstituzioaren kontrako deklaratzeko edo baliogabetzeko edo epaileen erabakietara egokitzeko epean.

Proiektatutako xedapenaren kasuan, honako honek justifikatzen du presako izapidetzea:

5.1.- Sarrera: arau-testuingurua eta hutsune normatiboa.

7/2023 Legeak, abenduaren 21ekoak, Hezkuntzarenak, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua sortu zuen (90. artikulua), autonomia funtzionala duen organo gisa. Hala ere, legeak berak aurreikusten du dekretu bidez garatu behar direla bai Institutuen osaera eta bai eginkizunak.

Lege horretako Azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, *“Eusko Jaurlaritzak edo hezkuntzaren arloko eskumena duen saileko buruak –gai jakin bat garatzeko araugintza-eskumena nork duen– lege hau indarrean jartzen denetik gehienez ere bi urteko epean onartu beharko dituzte arau-testu hau garatzeko aurreikusten diren erregelamenduzko arau-xedapenak”*.

Legea 2024ko otsailean sartu zen indarrean eta, beraz, betea da dagoeneko erregelamenduzko arau-xedapenak onartzeko emandako epea.

Bestetik, 381/2024 Dekretuak, azaroaren 19koak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa ezarri arren, ez ditu garatzen Institutua arautzeko behar diren alderdi espezifikoak; ez du arautzen ez egitura funtzionala, ez prozedura-esparru propioa, ezta jarduketa nagusien eskumen-esleipen zehatza ere.

Ondorioz, gaur egun Institutua oinarri juridiko osatu eta espezifikorik gabe ari da funtzionatzen, eta horrek hainbat zailtasun sortzen ditu kudeaketan, fiskalizazioan eta segurtasun juridikoan.

5.2.- Arazoaren muina.

Dekretua orain arte izapidetzeko izan diren eta aurreikusgarriak ez ziren zailtasun nabarmenenak honakoak izan dira: Zuzendaritza berriaren sorreraren ondorioz, euskara zerbitzuaz gaindiko lan-jardun berria jorratu eta diseinatzeko denbora beharra (misio eta bisio berriaren lanketa, aliantza berriak sortzeko beharra, Euskararen eta hizkuntzen ikaskuntzarako institutuaren eginkizunak egituratzeko

denbora beharra); lankideen finkatze eta lekualdatze prozesuaren ondoriozko langile aldaketak eta egonkortzeko denbora beharra; une honetako egoera juridiko-administratiboak sortu dituen eragozpenak kudeatzeko jakintza eta denbora beharra.

Dekreturik ez izateak Euskararen eta Hizkuntzen ikaskuntzarako institutuaren eginkizunetan arazo normatiboa sortzen du: jarduketek ez dute oinarri juridiko espezifiko eta autonomorik, eta horrek segurtasun juridiko ahula dakar.

Arazoa ez da operatiboa; normatiboa da.

Egin beharreko jarduketa nagusiek —deialdiak, zerbitzu-eginkizunen luzapenak (ZZEE), langileen kontratazioa— ez dute arau-esparru propio eta autonomorik. Ondorioak:

- Ez dago eskumen-esleipen argi eta espresurik.
- Ez dago prozedura-esparru arautu eta egonkorra zehaztuta.
- Jarduketak arau orokorretan edo interpretazio zabaletan oinarritzera behartuta daude.
- Segurtasun juridiko ahula eta ezegonkorra.

Honek guztiak administrazio-jardunaren egonkortasuna eta legezkotasuna arriskuan jartzen ditu, bereziki fiskalizazioan eta kontrol jurisdikzionallean.

5.3.- Dekreturik ezean une honetan sortzen diren arazoak

5.3.1. Deialdiak (IRALE Programa eta besteak)

- Oinarri juridikoa ez da nahikoa zehatza. IRALE programari lotutako deialdiak kudeatzeko eskumen organoak ez daude argi sailburuordetzarik ez duen neurrian.
- Deialdiak sinatzen dituen aginpide-mailan inkongruentziak agertzen dira (Aginduak sailburuak sinatu behar dituelako eta ebazpen batzuk zuzendariak eta beste batzuk sailburuordeak sinatzen dituztelako). Dekretuaren gabeziak prozeduren fase desberdinetan organo eskumenduna nor den identifikatzeko zailtasunak sortzen ditu.
- Erreklamazio-arrisku handiagoa dago eta administrazio-bidea agortzen da goi-mailako organo baten aurrean.
- Fiskalizazioan eta kontrol jurisdikzionallean zalantzak sortzen dira, eta prozesuak moteldu edo blokeatu daitezke.

5.3.2. Zerbitzu-eginkizunen luzapena (ZZEE)

- Ez dago luzatzeko mekanismo arauturik. LPZrik ez izateak arazoak sortzen ditu zerbitzu-eginkizunak sortu, bete eta luzatzerakoan.
- Sailak aldi baterako irtenbideetan oinarritzen du jarduna.
- Jarraikortasun funtzionala arrisku egoeran dago.

5.3.3. Langileen kontratazioa eta lanpostu-egituraketa

- Egitura edo programa legislatiboki aitortu gabe dagoenez, langileen kontratazioan estaldura juridiko ahula.
- Lanpostu-kopurua ezin definitu, antolaketa-beharrak ezin justifikatu behar bezala.
- Hezkuntza sailaren lurralde ordezkarietzeko lankideak Ikaskuntza eta Berrikuntza zuzendaritzaren EUSKARA ATALA eremuan kokatzen dira, eta beraz, institutuaren jardunari erantzuteko zailtasunak egon litezke, edo baita haien iraunkortasuna bermatzeko ere.
- Lanpostu zerrendarik ezean, bertako langileen iraunkortasuna zalantzan jartzeko arriskua dago.
- Euskararen eta hizkuntzen ikaskuntzarako institutuak bere lan-jarduna bideratzeko behar dituen profesionalen profilak zehazteke daude eta

horrek zailtasunak sortzen ditu ardurak banatzeko garaian edo lanpostuak sortzeko garaian.

- Aurrekontuen Zuzendaritzak berak ohartarazi du ez dagoela oinarri juridiko nahikorik, eta horrek fiskalizazio negatiboaren arriskua handitzen du.

5.3.4. IRALE irakastegiak eta jarduera osagarriak

- Funtzioak eta egituretan argitasun falta dago.
- Irakastegiak hemendik aurrera Institutuak kudeatuko ditunez, irakastegi horien kudeaketa-ardurak eta funtzionamendua zehazteke daude.
- Jarduera batzuk ez daude formalki jasota, nahiz eta faktikoki egiten diren.
- EIMA, LANEKI eta bestelako egituren hartu-emana ez dago modu arautuan zehaztuta.

Hau da, egindako guztia "konponketa administratiboetan" oinarritzen da, ez egituratutako esparru juridiko batean.

5.4. Dekretuak ekarriko lituzkeen hobekuntzak

5.4.1. Eskumen-esleipena

- Zehaztuko da zein arduranek sinatu behar dituen deialdiak, ebazpenak eta bestelako egintza juridikoak.

5.4.2. Prozedura-esparru propioa

- Arautuko dira deialdiak, zerbitzu-eginkizunak, jarraipenak eta antolaketa-prozedurak.
- Kudeaketa estandarra, egonkorra eta aurreikusgarria izango da.

5.4.3. Segurtasun juridikoa

- Egintzen legezkotasuna indartuko da eta fiskalizazio-arriskuak murriztuko dira.
- Institutuaren jardunaren egonkortasuna eta babesa bermatuko dira.

5.4.4. Langile-politika eta egitura

- Lanpostu-zerrenda eta beharrianak modu koherente eta egituratuan definituko dira.
- Kontratazioari estaldura juridiko sendoa emango zaio.

5.4.5. Efizientzia administratiboa

- Kudeaketa arinago eta eraginkorragoa izango da.
- Prozesuak azkartu eta zalantzak desagerraraziko dira.

5.5. Ondorioa

Dekreturik ez izateak zuzenean eragiten dio Institutuaren jardunari, haren egonkortasuna eta segurtasun juridikoa nabarmen kaltetzen baititu. Bestetik, Legeak arau-garapen horretarako finkatu zuen epea gainditua da dagoeneko, institutuaz kanpoko arrazoiak direla medio. Azkenik, egoera honetara ekarri gaituzten arrazoiak nekez aurreikustekoak ziren.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da Dekretu hau presaz izapidetzea, presa horrek prozeduraren bermeengan eragin litzakeen ondorioak askoz arinagoak irudikatzen baitira Dekretu-gabeziak Institutuaren eguneroko jardunari eragiten dizkionak baino.

6.- Enpresan duen eraginari buruzko txostena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikulua (2012ko uztailaren 6ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 132. zk.) ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein erregulazio edo arau berri baino lehen, Eusko Jaurlaritzak enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan izango duen eraginari buruzko ebaluazio-txostena egingo du.

7.- Aginduzko txostenak eta irizpenak.

Funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira:

- Txosten juridikoa
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan duten eraginari eta hizkuntza-arloan indarrean dagoen araudira egokitzeari buruzkoa. Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 2. artikulua eskatzen du hori.
- Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren txostena
- Eskola Kontseiluaren txostena

16. artikuluan xedatutakoaren arabera, funtsezkoak ez diren txosten horiek guztiak aldi berean eta hilabeteko epe erkidean egingo dira, aurretiazko onarpena duen xedapenaren testua Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

8.- Nahitaezko funtsezko txostenak eta irizpenak.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 19. artikulua xedatzen duenez, espedientea aurreko artikuluetan aurreikusitako izapideen arabera osatu ondoren, honako txosten hauek eskatu eta bete beharko dira:

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia eta arau arloko kontrolari buruzko txostena.

9.-Amaierako espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Amaierako espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera eratuko da. Era berean, prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko da, 24. artikulua horren 2. eta 3. paragrafoetan adierazitako edukiarekin.

10.- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren dokumentua eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzea.

Espedientea erabat izapidetu ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatuko da, eta dokumentazio bera bidaliko da Eusko Legebiltzarrera, Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak eskatzen duenarekin bat etorritz.

11.- Gardentasuna.

Dekretu-proiektua egiteko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia Legegunea euskal araudiaren atarian argitaratu behar da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

12.- Gobernu Kontseiluak onartzea.

Plana egiteko prozedura amaitutakoan, dekretu-proiektua Gobernu Kontseiluak onartu beharko du, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Xedapenak uki ditzakeen subjektu eta erakunde adierazgarrienen aurretiazko identifikazioa.

Dekretu-proiektu hau urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan eta ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan aurreikusitako kontsulta publikoaren izapidearen mende jarri da arauak ukitu ditzakeen pertsonen eta erakunde esanguratsuenen iritzia jasotzeko.

Arau-proposamen honek ez du eragin nabarmenik jarduera ekonomikoan.

Itzulpen edo idazketa elebidunerako teknika.

Dekretu -proiektua Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian aurreikusitakoaren arabera idatzi beharko da. Erabaki horren bidez, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzetan egiteko neurriak onartzen dira.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko erabiliko den sistema Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) itzulpengintzakoa izango da, 6/2022 Legearen 27.3 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen itzulpengintzako zeharkako zerbitzuen zentralizazioa zehazten duen apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Prozedura Tramitaguneren bidez izapidetzea

Prozedura "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpenak xedatutakoari jarraikiz, zeinaren bidez argitara ematen den arau-xedapen orokorrak lantzeko prozeduraren Oinarrizko Izapidetze Eredua onartzeko Erabakia, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Euskararen eta Hizkuntzen Irakaskuntzarako Institutuaren osaera eta egitekoak zehazten dituen dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko agintzea.

Bigarrena.- Dekretu-proiektua egiteko prozeduraren presazko izapidetzea deklaratzeko, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legeak aurreikusitako txostenak edo alegazioak egiteko epeak erdira murriztea.

Hirugarrena.- Proiektu hori egiteko prozedurak bat etorri beharko du Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritakoarekin, eta beharrezkotzat jotzen diren izapide eta txostenak bete beharko ditu.

Hezkuntzako sailburua